



## ERANSKINA

**Meta! egitasmoan parte hartzeko deialdiaren oinarriak**

**Izenburua: Meta! Mikromezenasgo kulturala Gipuzkoan**

### 1. TESTUINGURU ETA GAIAK

META! talde-finantzazioa egiteko tresna berria da, pertsona askoren arteko lankidetzan oinarritua; ekimen jakin baten garapenari laguntzeko diru-kopuru bat biltzeko, internetek eskaintzen dituen aukerak erabiltzen dituzte. Eta talde-finantzazioari (*crowdfunding*) erakunde laguntza erantsi behar zaio, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ko-finantzazioa hain zuzen, *matchfunding* aren bidez.

META! egitasmoa goteo.org plataformaren bidez garatzen da. Goteo gizarte-sare bat da, talde-finantzazioa (diru-ekarpenak) eta lankidetzaren banatua (zerbitzuak, azpiegiturak, mikroatazak eta beste baliabide batzuk) burutzen dituen, eta, haren bidez, herritarren konpromisoari esker, gizarte, kultura, zientzia, hezkuntza, teknologia edo ekologiararen esparruetako helburuak lortu asmo duten proiektu sortzaile eta berritzaileen garapen autonomoa sustatzen da.

Plataforma hori irabazi asmorik gabeko Goteo Fundazioak kudeatzen du, eta honako printzipio hauek ditu oinarri: irekia, neutrala, gardena eta independentea izatea Goteo.org *crowdfunding* plataformaren garapenean eta mantentzean. Gainera, zerga onurak eskaintzen dizkie emaile eta bultzatzaileei.

META! egitasmoan, *crowdfunding* formulari Gipuzkoako Foru Aldundiaren inplikazioa erantsi behar zaio; *matchfunding* bidez, deialdi honetan parte hartu eta hura sustatzen baitu hiritarren ekarpenak osatze aldera, eta, horrela, ondorio biderkatzailea eragiten du egindako ekarpenekin

Proiektu bakoitzaren *crowdfunding* kanpainak hasten direnean, Foru Aldundiaren

## ANEXO

**Bases convocatoria de Meta!**

**Título: Meta! Micromecenazgo cultural en Gipuzkoa**

### 1. CONTEXTO Y TEMÁTICAS

META! es una nueva herramienta de financiación colectiva basada en la cooperación entre muchas personas, que utilizan las posibilidades que ofrece internet, para reunir una suma de dinero con la que apoyar el desarrollo de una iniciativa concreta. En META! se unen la financiación colectiva (*crowdfunding*) con el apoyo institucional mediante la co-financiación de la Diputación de Gipuzkoa a través del *matchfunding*.

META! se desarrolla a través de la plataforma goteo.org, una red social para la financiación colectiva (aportaciones monetarias) y colaboración distribuida (servicios, infraestructuras, microtarefas y otros recursos), desde la que se impulsa, gracias al compromiso de la ciudadanía, el desarrollo autónomo de proyectos creativos e innovadores, cuyos fines sean de carácter social, cultural, científico, educativo, tecnológico o ecológico.

Esta plataforma está gestionada por la Fundación Goteo, entidad sin ánimo de lucro que asegura los principios de apertura, neutralidad, transparencia e independencia en el desarrollo y mantenimiento de la plataforma de *crowdfunding* Goteo.org, así como ofrece beneficios fiscales a donantes e impulsores.

En META!, a la fórmula del *crowdfunding* hay que añadir la implicación de la Diputación Foral de Gipuzkoa que, mediante el *matchfunding*, participa e impulsa esta convocatoria, complementando las aportaciones ciudadanas, con sus aportaciones, creando un efecto multiplicador.

Cuando se inician las campañas de *crowdfunding* de cada proyecto, la co-financiación de la



ko-finantzazioak proiektuak laguntzen dituzten hiritarren ekarpenak babesten ditu, modu progresiboan. Eta horrela, hiritarrek ipintzen duten euro bakoitza biderkatu egiten da Foru Aldundiak ipinitakoari esker. Horri deitzen diogu *matchfundinga*. Modu horretan, proiektuek bere komunitatean jasotako ekarpenez gain, Gipuzkoako Foru Aldunditik 4.700 euro arte jaso ditzakete, Goteo Fundazioaren bidez.

Foru Aldundiak Goteo Fundazioarekin batera sustatutako META! egitasmoaren laugarren deialdia da hau. Deialdi horren bidez, herritarren parte-hartzearekin, Gipuzkoan finkatutako eragileek garatzen dituzten ekimen berritzaileen sorrera bultzatu nahi da kulturaren esparruan.

Agiri honen bidez Gipuzkoako kultura-proiektuen (META!) *crowdfundinga* bultzatzeko kanpainaren oinarriak zehazten dira, eta komenigarria da arretaz irakurtzea. META! deialdira proiektuak aurkezten direnean oinarri horiek onartzen direla ulertuko da.

## 2. NORI ZUZENDUTA DAGO?

*Crowdfunding* a bultzatzeko deialdi honetan, Gipuzkoako gizarte zibileko eragileek -partikularrek nahiz entitate juridikoek (elkarte, kooperatiba, entitate sozial, etab.)- garatuko duten kultura-izaerako edozein proiektu aurkez daiteke.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira enpresak, udalak eta bestelako administrazio-erakundeak, eta, halaber, Gipuzkoako Foru Aldundia partaide duten erakunde eta organismoak.

Ezingo dira aurkeztu, ezta ere, aurreko META! deialdietan hautatuak izan diren proiektuak.

*Crowdfundinga* bultzatzeko kanpaina honetan parte hartzeak berekin dakar proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuak antolatzen dituen bestelako laguntzak eta diru laguntzak eskuratzeko deialdietara ezin aurkeztea.

Diputación respalda las contribuciones de los ciudadanos que apoyan los proyectos, de forma progresiva. Así, cada euro de la ciudadanía se multiplica por el equivalente aportado por la Diputación, en lo que denominamos *matchfunding*. Con este procedimiento, los proyectos pueden sumar a las contribuciones recaudadas entre su comunidad, hasta un máximo de 4.700€ de la Diputación de Gipuzkoa a través de la Fundación Goteo.

Esta es la cuarta convocatoria de META! impulsada por la Diputación junto con la Fundación Goteo, para favorecer el surgimiento de iniciativas novedosas en el ámbito cultural, desarrolladas por agentes radicados en Gipuzkoa, buscando la implicación de la ciudadanía.

El presente documento determina las bases de la campaña de *crowdfunding* de proyectos culturales de Gipuzkoa (META!), con lo que conviene leerlas con atención. La presentación de los proyectos a la convocatoria META! supone la aceptación de las mismas.

## 2. A QUIÉN VA DIRIGIDA

Esta convocatoria de *crowdfunding* está abierta a cualquier proyecto de índole cultural, a desarrollar por parte de agentes de la sociedad civil guipuzcoana, bien particulares, bien entidades jurídicas tales como asociaciones, cooperativas, entidades sociales etc.

Quedan excluidos de esta convocatoria las empresas, los ayuntamientos y otras instituciones administrativas, así como los entes y organismos de los que forma parte la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Tampoco podrán presentarse los proyectos que hayan sido seleccionados en anteriores convocatorias de META!

La participación en esta campaña de *crowdfunding* presupone la no presentación del mismo proyecto participante a ninguna otra convocatoria de ayudas y subvenciones del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa.



### 3. PROIEKTU MOTAK

#### Gaiak:

*Crowdfundinga* bultzatzeko kanpaina honen barruan sartuko dira gipuzkoar eragileek garatutako kultura-proiektuak.

Bereziki baloratuko dira ekimen berritzaileak, gipuzkoar eragileen sustatze-ahalmenari eragiteko eduki nabarmena dutenak.

Era berean, parte hartu ahal izango dute gipuzkoar eragileek nazioarteko lankidetzaren esparruan garatutako kultura-izaerako ekimenek

#### Formatuak:

Kulturaren alorreko edozein ekimen, ekitaldi, programa, ekoizpen kultural, zerbitzu, teknologiaren garapen... aurkeztu ahal izango da *crowdfundinga* bultzatzeko kanpaina honetan.

*Crowdfundinga* bultzatzeko kanpaina Gipuzkoako gizarteari zuzenduta dagoenez, formatuaren bidez bilatu beharko da proiektua lurraldeko kultura- eta sorkuntza-beharrekin batzeko erarik onena, eta baita nazioarteko lankidetzako ekintzetan kulturaren esparruan esku hartzea ere.

### 4. EPEAK ETA EGUTEGIAK

#### 4.1. Proposamenak jasotzeko fasea:

2019ko apirilaren 25etik (00:00etan) ekainaren 7ra arte (15:00etan), biak barne, irekita egongo da proposamenak prestatu, horien inguruko aholkularitza eman eta bidaltzeko epea, geroago Meta! egitasmoaren barruan baloratzeko.

#### Nola aurkeztu proposamen bat?

Proposamenak aurkezteko, erabiltzaile bat sortu beharko da eta deialdi honetarako web orrialdean <https://www.goteo.org/call/meta-gipuzkoa-2019> dagoen proiektuak jasotzeko inprimakia bete, Goteo.org orrian erabiltzailearen profil bat erregistratu eta gero.

Komenigarria da inprimakia azken unean ez betetzea eta, aitzitik, proiektuaren edizio eta argitalpenean lanean aritzea pixkanaka, egin

### 3. TIPO DE PROYECTOS

#### Temas:

Tienen cabida en esta convocatoria de *crowdfunding* los proyectos culturales desarrollados por agentes guipuzcoanos.

Especialmente se valorarán aquellas iniciativas novedosas y con una fuerte capacidad de activar la creatividad de los agentes guipuzcoanos.

También podrán tomar parte iniciativas de índole cultural desarrolladas por agentes guipuzcoanos en el área de la cooperación internacional.

#### Formatos:

Cualquier iniciativa en el ámbito de la cultura, evento, programa, producción cultural, servicio, desarrollo tecnológico... es susceptible de presentarse a esta campaña de *crowdfunding*.

Dado que la convocatoria de la campaña de *crowdfunding* está dirigida a la sociedad guipuzcoana, el formato deberá buscar el mejor entronque del proyecto con las necesidades culturales y creativas del territorio, así como la intervención en el ámbito cultural en acciones de cooperación internacional.

### 4. PLAZOS Y CALENDARIOS

#### 4.1. Fase de recepción de propuestas:

Entre el 25 de abril 2019 a las 00:00h y el 7 de junio de 2019 a las 15:00h estará abierto el plazo de convocatoria pública para la preparación, asesoramiento y el envío de propuestas para su posterior valoración.

#### ¿Cómo presentar una propuesta?

La presentación de las propuestas se llevará a cabo creando un usuario y rellenando un formulario de recepción de proyectos habilitado en la página web de esta convocatoria <https://www.goteo.org/call/meta-gipuzkoa-2019> previo registro de un perfil de usuario en Goteo.org

Es conveniente no dejar la tarea de rellenar el



beharreko urratsak eginez eta eskuragarri dagoen tutoretza erabiliz (bideoaren lotura)

Parte hartzaileek gehienez ere 2 proiektu aurkeztuko dituzte eta 1 bakarrik hautatuko da kanpainan sartzeko.

Inprimakian dauden eremu guztiak bete beharko dira (izenburua, azpititua, gutxieneko eta gehieneko aurrekontua, deskribapen laburra, oinarritzko ezaugarriak eta *crowdfundinga* bultzatzeko kanpainaren helburuak, nori dagoen zuzenduta, aurretiazko esperientzia eta lantaldea, eskaintzen diren banakako sariak eta taldeko itzulketak, konpromiso soziala, eskatutako lankidetzak, lan-egutegia, etab.).

Komenigarria da kontuan izatea bideo labur bat eta argazki hautatu batzuk prestatu behar direla proiektua ilustratzeko. Proiektua aukeratua izanez gero, bideo hau eta dokumentazio grafikoa aldatu ahal izango dira.

Inprimakia bete ondoren, kasu guztietan, EZINBESTEKOA DA AZTERTZERA BIDALTZEA EZARRITAKO EPEETAN, proiektu bakoitza behar bezala baloratu ahal izateko, META! egitasmoaren izaera orokorarekin duen kidetasunaren arabera eta deialdi honetako oinarrietan zehaztutako balorazio irizpideen arabera.

Inprimakia AZTERTZERA BIDALTZEN EZ BADA, baliogabetzat hartuko da, eta ez da hautaketaren barruan sartuko deialdian.

Proiektuak aurkezteko epea ekainaren 7an bukatuko da, 15:00etan, eta hortik aurrera ez da onartuko proposamen berririk.

#### 4.2. Hedakuntza- eta prestakuntza-ekintzak

Proiektu bat aurkeztu nahi dutenei ahalik eta informazio gehiena emateko hainbat hedakuntza eta prestakuntza-ekintza antolatuko dira eta komenigarria da parte hartzea:

2019ko maiatzaren 15a: *Crowdfundingari* buruzko prestakuntza lantegia, herritar guztientzat irekia.

formulario para el último momento, sino que se recomienda trabajar en la edición-publicación del proyecto siguiendo los pasos y utilizando el tutorial disponible (enlace al vídeo tutorial).

Los participantes podrán presentar hasta un máximo de 2 proyectos aunque sólo 1 podrá ser seleccionado para entrar en campaña.

Se deben rellenar todos los campos requeridos en el formulario: título, subtítulo, presupuesto mínimo y óptimo, descripción, características básicas y objetivos de la campaña de *crowdfunding*, motivación y a quién va dirigido el proyecto, experiencia previa y equipo, recompensas individuales que se ofrecen, compromiso social, colaboraciones solicitadas, calendario, etc.

Es conveniente tener en cuenta que hay que preparar un breve vídeo así como una selección de fotos que ilustren el proyecto. Este vídeo, así como la documentación gráfica, podrán ser modificados en caso de que el proyecto sea seleccionado.

Una vez rellenado el formulario, en cualquier caso, es IMPRESCINDIBLE ENVIARLO A REVISIÓN DENTRO DE LOS PLAZOS ESTABLECIDOS, de manera que cada proyecto se valore convenientemente, según su afinidad con el carácter general de META! y con los criterios de valoración definidos en las bases de esta convocatoria.

Si el formulario NO SE ENVÍA A REVISIÓN, se considerará nulo y no entrará a formar parte de la selección de la convocatoria.

El plazo para la presentación de proyectos finaliza el 7 de junio a las 15:00 h, fecha a partir de la cual no se aceptarán nuevas propuestas.

#### 4.2. Acciones de divulgación y formación

Para aportar la máxima información a quienes quieran presentar un proyecto se organizarán una serie de acciones de divulgación y formación, a las que se recomienda asistir

15 de mayo de 2019: taller formativo sobre *crowdfunding*, abierto a la ciudadanía



2019ko uztailaren 11a: META! egitasmorako hautatuak izan diren proiektuen komunikazioan prestatzeko lantegi praktikoa eta derrigorrez joan beharrekoa.

Ekintza horiei buruzko informazio xehatua nahiz izen emateko eta parte hartzeko moduak web hauetan egongo dira eskuragarri: <https://www.goteo.org/blog/10166>

*Crowdfunding* tailerrera joatea oso gomendagarria da deialdian parte hartzeko interesa duten pertsona guztientzat, deialdiaren ezaugarriak ezagutzeko eta *crowdfunding* kanpainak zer diren eta nola funtzionatzen duten jakiteko, nahiz GOTEO Fundazioko kideekin elkartu eta elkar ezagutzeko.

Nolanahi ere, **uztailaren 11ko komunikazioko berriazko lantegira joatea nahitaezkoa da hautatutako 15 proiektuen arduradunentzat**, lantegi horren xedea baita proiektuen sustatzaileak prestatu eta aholkatzea aurrez aurre, modu pertsonalizatuan, gutxieneko finantzaketa lortzeko aukerak indartzeko eta, hortaz, kanpainaren arrakasta handitzeko

#### 4.3 Proiektuen balorazioa eta hautaketa

Behin proposamenak jasotzeko epea amaitzen denean, proiektuak ebaluatuko dira ondorengo irizpide eta prozeduren arabera.

##### BALORAZIO IRIZPIDEAK

Aukeraketa egiteko, kontuan hartuko da proposamenaren bideragarritasun orokorra eta proiektuak nola egokitzen diren *crowdfundingak* finantzatzeko bitarteko bezala eskaintzen dituen aukeretara, balorazio-irizpide hauen arabera:

Zehazteko fasean egotea eta, aurrekontu koherenteaz gain, ekimena modu eraginkorren garatzeko plan bat izatea. (2 PUNTU)

Esperientzia eta gaitasun frogagarriak dituzten eragileek sustatuta egotea edo eragile horiek bertan parte hartzea, modu eraginkorrago eta erakargarriagoan hedatzeko, eta, komunikazio-plan bat garatu eta ezartzeko gaitasuna izatea.

11 de julio de 2019: taller práctico y obligatorio, de formación en comunicación para los proyectos seleccionados de META!

La información detallada sobre estas acciones, así como el horario, lugar, formas de inscripción y participación, estará disponible en: <https://www.goteo.org/blog/10166>

La asistencia al taller de *crowdfunding* es altamente recomendable para todas las personas interesadas en participar en la convocatoria, para conocer sus características, qué son y cómo funcionan las campañas de *crowdfunding*, así como para encontrarse y conocer a los asesores de la Fundación GOTEO.

**La asistencia al taller específico de comunicación del día 11 de julio es obligatoria para los responsables de los 15 proyectos seleccionados**, ya que su función es formar y asesorar de manera personalizada y presencial a los impulsores, con el objetivo de potenciar las posibilidades de conseguir la financiación mínima y, por tanto, aumentar el éxito de la campaña.

#### 4.3 Fase de valoración y selección de proyectos

Una vez cerrado el plazo de recepción de propuestas, los proyectos serán evaluados según los siguientes criterios y procedimientos

##### CRITERIOS DE VALORACIÓN

Para hacer la selección se considerará la viabilidad general de la propuesta y adecuación de los proyectos a las posibilidades que ofrece el *crowdfunding* como medio de financiación, teniendo en cuenta los siguientes criterios de valoración:

Que se encuentren en una fase de concreción y cuenten con un presupuesto coherente y un plan para el desarrollo efectivo de la iniciativa. (2 PUNTOS)

Que estén impulsadas y/o impliquen a agentes con



Hori frogatzeko, komunikazio digitalaren hasierako deskribapen labur bat ipini beharko da Goteon, *crowdfunding* a bultzatzeko kanpainari begira, proiektuak inskribatzeko inprimakiak duen "Hedapena" atalean. (3 PUNTU)

Proiektua zer kolektibo eta interes-talderi zuzenduta egongo den ondo identifikatuta egotea. (PUNTU 1)

Interes-taldeentzat erakargarriak diren banakako sariak proposatzea; sariak jasangarriak izango dira, eta balio ekonomiko desberdineko tarteetara iritsiko dira. Baloratuko da sari horiek emaitzak erabili eta erreplikatzeko aukera ematea, erabilera komuneko baliabideak eskura jarritz, kodea irekiz eta lizentzia libreak erabiliz. (2 PUNTU)

Proposamenaren kalitatea eta originaltasun- nahiz berrikuntza-maila, egungo ezagutzaren, produktuen eta zerbitzuen eskaintzari dagokionean nahiz komunitatearentzat desiragarriak diren eta ingurunea eraldatzeko eragin positiboak sortzen dituzten balioak sustatzeari dagokionez. (3 PUNTU)

Partaidetza-kudeaketa gardena, lankidetzajardunbideak edota eragileen arteko lankidetzak sustatzea. (PUNTU 1)

Proiektua Gipuzkoan garatu eta burutzea, eta proiektuaren bidez Gipuzkoako kulturaren esparrua aberastu eta bertan elkarri lotzea, eta, halaber, Gipuzkoako ekosistema kulturean sar daitezkeen kalitatezko eta sormenezko proiektu eta ekimenak dakartzaten eragile berrien agerpena sustatzea. (3 PUNTU)

## **EBALUAZIO BATZORDEA ETA HAUTATUEI JAKINARAZTEA**

Irizpide horiek jarraituz, proiektuak ebaluatu eta hautatuko ditu epaimahai batek. Epaimahai hori berriaz eratuko da ondorio honetarako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Goteo Fundazioko kideek osatuko dute. Talde ebaluatzaileak proiektuei buruzko informazio gehiago eskatu ahal izango du eta, halaber, beharrezkotzat jotzen badu, aholkularien laguntza eskatu ahal izango du, behar bezala baloratzeko berriazko ezagutza beharrezkoa duten gai jakin batzuetarako.

experiencia, capacidad demostrable y tiempo disponible para seguir las campañas, dinamizarlas y difundirlas de manera eficaz y atractiva, y que puedan desarrollar un plan de comunicación e implantarlo. Esto deberá demostrarse proponiendo una primera descripción breve del plan de comunicación digital para la campaña de crowdfunding en el apartado "Difusión" del formulario de inscripción de proyectos en Goteo. (3 PUNTOS)

Que tengan bien identificados los colectivos y grupos de interés para su proyecto. (1 PUNTO)

Que propongan recompensas individuales atractivas para sus grupos de interés, que sean sostenibles y que cubran diferentes tramos de valor económico. Se valorará que tales recompensas permitan la utilización y replicabilidad de los resultados mediante la puesta a disposición de recursos de uso común, la apertura del código y la utilización de licencias libres. (2 PUNTOS)

Calidad de la propuesta y nivel de originalidad e innovación respecto a la actual oferta de conocimientos, productos, servicios, y respecto a la promoción de valores deseables para la comunidad, que generen efectos positivos, transformadores en el entorno. (3 PUNTOS)

Promoción de la gestión participativa y transparente, las prácticas colaborativas y/o la cooperación entre distintos agentes. (1 PUNTO)

Ser un proyecto desarrollado y realizado en Gipuzkoa, que pueda enriquecer y promover la aparición de nuevos agentes en la escena cultural guipuzcoana, aportando proyectos e iniciativas de calidad y creatividad que puedan interconectarse e integrarse en el ecosistema cultural de Gipuzkoa. (3 PUNTOS)

## **COMISIÓN DE EVALUACIÓN Y COMUNICACIÓN A LOS SELECCIONADOS**

Los proyectos serán evaluados siguiendo estos criterios por un jurado constituido a tal efecto, y formado por miembros de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de la Fundación Goteo. El equipo



Orohar gehienez 15 proiektu aukeratuko dira.

Deialdi honetako Ebaluazio Batzordeak beretzat gordeko du aukeratutako 15 proiektuen arteko plaza bat garapenerako lankidetzaz sustatzen duen proiektu bati emateko ahalmena, lortutako puntuazioa kontuan hartu gabe.

Goteo fundazioak beretzat gordeko du proiektuak ez argitaratzeko eskubidea, bai plataforman argitaratzeko oinarri hauetan, <https://goteo.org/faq/project> eskuragarri daudenak, zehaztutako oinarriko irizpideak betetzen ez dituztelako, bai eta eskaini zaien aholkularitza jarraitu edo hartan aktiboki parte hartu ez dutelako ere.

Hautatutako proiektuen sustatzaileei indibidualki egingo zaie jakinarazpena.

Aukeratutako proiektuek formalki baieztatuko dute euren onarpena; horretarako, emango zaien ereduaren arabera erantzukizunpeko adierazpen bat sinatu eta atxikiko dute, oinarriak onartuz eta kanpainen dinamizazioan eta GOTEOKo aholkularitza taldeak beharrezko ikusten dituen beste jardura guztietan aktiboki parte hartzeko konpromisoa hartuz.

Aukeratutako proiektuen zerrenda osoa META!ren webgunean eta goteo.org web orrian argitaratuko da, 2019ko ekainaren 26a baino lehen.

#### **4.4. Aholkularitza hautatutako proiektuei**

2019ko ekainaren 25etik irailaren 18ra arte, hautatutako proiektuen sustatzaileek online aholkularitza espezializatua eta banakakoa jasoko dute, *crowdfunding* kanpainako proiektuak egokitzen eta optimizatzen amaitzearen eta maximizatzea (konpromiso soziala eta sariak, aurrekontu minimo eta hobeezina, bideo eta irudiak...) proiektu bakoitzaren helburuak.

Hautatutako proiektuek aurrez aurreko prestakuntza espezializatua jasoko dute 2019ko uztailaren 11n, eta komunikazio plan bat behar bezala antolatzeko lan egingo da. Proiektuek

evaluador podrá solicitar más información sobre los proyectos, así como solicitar el apoyo de agentes asesores en determinadas temáticas que requieran un conocimiento específico.

En total se seleccionarán un máximo de 15 proyectos.

La comisión de evaluación de esta convocatoria se reserva la capacidad de destinar una de las 15 plazas de proyectos seleccionados a un proyecto de cooperación al desarrollo, con temática cultural, más allá de la puntuación obtenida, con el fin de favorecer la inclusión de iniciativas culturales orientadas a la cooperación en esta convocatoria.

La Fundación Goteo se reserva el derecho de no publicación de aquellos proyectos que no cumplan los criterios básicos de publicación de la plataforma [goteo.org](https://goteo.org) disponibles en <https://goteo.org/faq/project>, los términos definidos en estas bases, o que no hayan seguido y participado activamente en el asesoramiento facilitado.

La notificación a los agentes promotores de los proyectos seleccionados se realizará de manera individual.

Los proyectos que hayan sido seleccionados tendrán que confirmar formalmente su aceptación adjuntando, y firmando, una declaración responsable, según un modelo establecido que se les proporcionará, aceptando las bases y comprometiéndose a una participación activa en la dinamización de las campañas y en todas las tareas que el equipo asesor de Goteo considere necesarias.

La lista completa de los seleccionados se publicará en la web de META! y en [goteo.org](https://goteo.org) antes del 26 de junio de 2019.

#### **4.4. Asesoramiento a los proyectos seleccionados**

Entre el 25 de junio y el 18 de septiembre de 2019, los agentes impulsores de los proyectos seleccionados recibirán asesoría online especializada y personalizada, de cara a terminar de adecuar y optimizar los proyectos a la campaña



aholkularitza jasoko dute euren egitasmoak *crowdfunding* kanpainara egokitu eta optimizatzeko, proiektuen helburuak betetzeko aukerak maximizatzearren.

2019ko uztailaren 11ko lantegira joatea nahitaezkoa da hautatutako 15 proiektuen arduradunentzat (proiektu bakoitzeko gehienez 2 pertsona)

## 5. META! PROIEKTUEN CROWDFUNDING KANPAINAK EZAGUTZERA EMATEA

2019ko irailaren 19an, aldi berean ezagutzera emango dira hautatutako proiektuen *crowdfundinga* bultzatzeko kanpainak ; kanpaina horien bidez, proiektuen sustatzaileek, herritarrek, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Goteok eta beste kolaboratzaile-eragile batzuek ahaleginak batuko dituzte aurretiaz finkatutako finantzaketa-helburuak erdiesteko.

Proiektu bakoitzak elementu hauek izango ditu: aurkezteko berezko espazioa, albisteak eman eta eguneratzeak egiteko bloga, 2.0 komunikazio-tresnak, ordainketa-pasabidea, etab. Kanpainaren lehen txanda irailaren 19tik urriaren 28ra (23:59etan) bitartekoa izango da, eta bigarren txanda, berriz, urriaren 29tik azaroaren 17ra (23:59etan) bitarte. Badaude, hortaz, lehen finantzaketa txanda bat, 40 eguneko, eta bigarren txanda bat, 20 eguneko, zeinak lotzen baitaizkio proiektuaren gutxieneko eta gehieneko aurrekontuari (horren inguruko informazio gehiagorako jo oinarri arautzaile hauen 7. atalera).

*Crowdfundinga* bultzatzeko kanpaina amaitu eta hurrengo 12 hilabeteetan, Goteok eta Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektu arrakastatsuen eta haien helburu eta konpromisoen jarraipena egingo dute, parte hartzen duten eragileek eta kolaboratzaileek kasu bakoitzean ezarritako epeei jarraituz.

Baita ere, proiektuaren helburuak bete ondoren, gonbidapena luzatzen zaie proiektu-sustatzaileei aurrera eramandako jardueratik eratorritako materialak Goteon ipini ditzaten, komunitatearekin partekatzeko eta jakintza berriak sortzeko: adibidez, artxiboak, dokumentazioa, web orriak,

de *crowdfunding* y maximizar los objetivos de cada proyecto (compromiso social y recompensas, presupuesto mínimo y óptimo, vídeo e imágenes...).

Los proyectos seleccionados recibirán además una formación presencial especializada el día 11 de julio de 2019, durante la cual se trabajará la correcta articulación de un plan de comunicación, y los proyectos recibirán asesoramiento para adaptar y optimizar sus iniciativas a una campaña de crowdfunding, maximizando las posibilidades de cumplir con los objetivos de sus proyectos.

La asistencia al taller del 11 de julio de 2019 es obligatoria para los impulsores de los 15 proyectos seleccionados (máximo 2 personas por proyecto)

## 5. LANZAMIENTO DE LAS CAMPAÑAS DE CROWDFUNDING DE LOS PROYECTOS DE META!

El 19 de septiembre de 2019 se realizará el lanzamiento simultáneo de las campañas de crowdfunding de los proyectos seleccionados, a través de las cuales, los agentes promotores de los proyectos, la ciudadanía, la Diputación Foral de Gipuzkoa, Goteo y otros agentes colaboradores sumarán sus esfuerzos para alcanzar los objetivos de financiación marcados.

Cada proyecto dispondrá de su propio espacio de presentación, blog para noticias y actualizaciones, herramientas de comunicación 2.0, pasarela de pago, etc. El plazo de campaña será del 19 de septiembre al 28 de octubre (a las 23:59h) la primera ronda y del 29 de octubre al 17 de noviembre de 2019 (a las 23:59h), la segunda ronda. Hay, por tanto, una primera ronda de financiación de 40 días y una segunda ronda de 20 días, vinculadas al presupuesto mínimo y óptimo del proyecto (más información sobre este aspecto en el apartado 7 de estas bases reguladoras).

Durante los 12 meses posteriores a la finalización de la campaña de *crowdfunding* se realizará por parte de Goteo y la Diputación Foral de Gipuzkoa el seguimiento de los proyectos exitosos y del cumplimiento de sus objetivos y compromisos, según los plazos establecidos en cada caso con posibles agentes implicados y colaboradores.





iturburu-kodeak, etab. Kanpaina kudeatu>  
Material partekatuak ataletik egingo da hori.

## 6. META! MATCHFUNDINGAREN FUNTZIONAMENDUA

META! egitasmoak 70.000 euro arteko *matchfunding* poltsa bat du, herritarrek Goteo plataformaren bidez proiektuei ematen dizkieten banakako ekarpenak osatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak ipiniak.

META! egitasmoaren *matchfunding* a kanpaina amaitzean esleituko zaie proiektuei, betiere lehen txanda arrakastatsua izan bada, *match* euro 1 *crowdfunding* bidez lortzen den euro bakoitzeko, gehienez ere proiektu bakoitzeko *matchfunding* eko 4.700 euro, oinarri hauetan jasotako baldintzen barruan.

*Matchfunding* eko 70.000 euroak aukeratutako proiektuen artean banatzeko baldintzak eta beste alderdi batzuk (mugak, kontratuak eta ordainketak) ondoren zehazten dira:

- a) Gipuzkoako Foru Aldundiak jartzen duen META! egitasmoaren *matchfunding* osoa 70.000 eurokoa da gehienez.
- b) Goteok egindako *crowdfunding* kanpaina guztietan, proiektuarentzat ipinitako *crowdfunding* a eta *matchfunding* a ordaindu ahal izateko proiektua bere gutxienezko finantzaketara iritsi behar da kanpainaren lehenengo 40 egunetan.
- c) Fonda 15 proiekturen artean banatuko da, behin kanpainak amaituta, herritarrek ipinitako euro 1 = Foru Aldundiak ipinitako euro 1 izanik
- d) Proiektu bakoitzerako *matchfunding* zenbatekoa 4.700 eurokoa izango da eta herritarren artean egindako diru bilketari gehitzen zaio.
- e) Sustatzaileek eta herritarrek *crowdfundingean* gehiago inplikatzeko aukerako pizgarriak ezartzen dira, kanpainetan aktibatuko direnak,

También, una vez cumplidos los objetivos de su proyecto, se invita a las personas impulsoras a subir en su Goteo los materiales derivados de su actividad que puedan compartirse con la comunidad y generar nuevos conocimientos, tales como archivos, documentación, webs, códigos fuente, etc. Esto se realizará en el apartado Gestionar campaña> Materiales compartidos.

## 6. FUNCIONAMIENTO DEL MATCHFUNDING DE META!

META! cuenta con una bolsa de *matchfunding* de hasta 70.000€ para complementar las aportaciones individuales que realiza la ciudadanía a los proyectos a través de la plataforma Goteo, aportado por la Diputación de Gipuzkoa.

